



(+34) 943 424119  
San Martin, 36 - 3.B  
20005 DONOSTIA

# Farmaberi

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



## Farmazia Hiztegia

## argitaratu dugu

**F**armazialariok badugu jadanik euskaraz aritzeko oinarritzko baliabidea, gure langintzaren inguruko 2.500 hitz eta termino biltzen dituen Farmazia Hiztegia alegia. Betiko hitz eta egungo egoerari egokitutako berriak uztartzen ditu lan honek.

Euskal Herri zabalean, herri eta hirietan, han-hemenka sakabanaturik dauden farmazia askotan, betidanik egon dira farmazialari euskaldun prestu eta jatorrak, beren gaixo eta lagunekiko harremanak euskara hutsez izan dituztenak. Gugana euskaldun asko etortzen dira, eta horregatik dugu, hain zuzen ere, gure lexikoa landu beharra eta farmazia alorrean euskararen erabilpena ahalbideratu, bultzatu eta indartu beharra.

Izan ere, farmazia munduko lexikoak hutsuneak ditu, beste edozein alorretan gertatu den bezalaxe eta gaurkotu egin behar.

Tradizio hori eta euskararen hedapen geroz eta handiagoa uztartu nahi izan du FEUSEk, gure helburua farmazia munduan euskararen normalizazioa baita.

Sei mila ale egin ditugu. Elkarteak bete beharko dituen konpromisoez gain, nahi dugu Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Erkidegoko Farmazialarien Elkargoetako kideak ale bana dohainik jasotzea.

Farmazialarioi zuzendutako lana izan arren, osasunaren alorreko edozein profesional balia daiteke lanaz, anatomia, botikagintza, fisiologia, terapeutika, parafarmazia edota, besteak beste, diagnostikoaren inguruko termino ugari biltzen baititu. Zabal jokatu dugu alor horretan, UZEIren lankidetzaz eta usadiozko terminoak gor-

de diren bezalaxe gaurkotu dugu farmaziaren eta osasunaren inguruko lexikoa, ulergarritasuna eta erabilgarritasuna lehenetsita.

Dena den, ez da hiztegi arau-emailea, proposamen bat baizik eta proposamenaren alorrean bestelakorik ere egin dugu. Adibidez, analgesiko bat eskatu beharrean eska daiteke minkentzaile bat, antidiarrikoa eskatu beharrean beherakokotrakoa, eta antiinflamatorioaren orde hanturakotrakoa. Azken batean, hizkuntza jendeak hitz egiten duena da, eta denborak esango du azkenean zein termino hedatzen den.

Izan ere, hizkuntzak izaki bizidunak dira, etengabe landu eta aldatzen direnak. Beraz, baliteke hitz batzuk zokoraturik gertzea eta beste hitz eta termino asko, berriaz, hiztegiari gaineratu behar izatea, beste edozein hiztegitan gertatzen den bezalaxe. Hori dela eta, ziur gaude Farmazia Hiztegi hau ez dela azkena izango.

Egileok farmazialariak eta FEUSEko kideak gara: Patxi Arrasate (koordinatzailea), Juan Carlos Aristorena, Maria Jesus Atorrasagasti, Unai Berasategi, Miren Fuldain, Beatriz

2. orrialdean





Gaston, Pedro Iturria, Maria Teresa Omaetxebarria eta Maria Eugenia Sagardey.

Babesle eta laguntzaile ugari izan ditu hiztegiak. Babesle nagusiak: Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseilua eta Merck Sharp & Dohme. Babesleak: Cofares, Guifarco, Nafarco, Vascofar eta Unión Farmacéutica Guipuzcoana. Laguntzaileak: Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofiziala, Gedifar eta Safa Galenica. Hauei esker, bada, argitaratu egin da eta jaso duzu.

Erabiltzeko gonbit egiten dizugu. Zure eguneroko zereginetako lanabesa izatea nahiko genuke, alegia.

Hiztegiaren aurkezpena, 2002ko azaroaren 26an, egin genuen Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialean. Enrique Ordieres Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseilu-buruak, Patxi Arrasate hiztegia prestatu duen lan-taldearen koordinatzaileak eta Pello Iturriak, FEUSEko lehen-dakari gisa, parte hartu zuten aurkezpen-ekitaldian. Hiztegiaren argitalpenak Euskal Herriko komunikabideetan (irriti, telebista, egunkari eta aldizkarietan) oihartzun handia izan du.

Itxaro dugu guztioi lagunduko digula gure arloko euskararen normalizazioaren prozesuan.

## TACROLIMUS (Protopic)

# Inmunomodulatzaile bat lehenengoz dermatitisaren tratamenduan

Dermatitisak, berea du azaleko inflamazioa. Sintoma garrantzitsuena, eta beti agertzen dena, azkura da, eta eritasuna larritzen doan heinean, edo fasearen arabera, gorritasuna, edema, anpuluak edo besikulak, exudazioa, kostra eta likenifikazioa ageri dira. Dermatitis eta sistema inmunea estuki loturik daude. Bi hipersentsibilitate motak bi dermatitis eragiten dituzte.

1. I motako hipersentsibilitatea edo bapatekoa, dermatitis atopikoaren eragile da. Kasu honetan kanpoko antigeno batek, gorputzari zenbait sustantzia eragile aska arazten dizkio. Eimmunoglobulinaren (Ig E) sintesia asko handitzen da (hipersentsibilitate mota hau beti Ig E-ren presentzian gertatzen da, asma eta beste zenbait alergia erreakzio bezala); Histamina, prostanglandina eta beste zenbait sustantzia ere askatzen dira. Guzti honek alergia egoera nabarmen bat dakar.

2. IV motako hipersentsibilitateak (berandukoak) edo hipersentsibilitate zelularrek ukitze-dermatitisa eragiten du.

Erreakzio honetan, basodilatazioa dela eta gorritasuna ageri da, linfozitoak dermisean pilatzen dira, eta basoetik irteten den likidoak edema sortzen du. Likido pilatze honen anpuluak sortarazten ditu, eta hauen hausturak exudazioa, hau legortzean kostra horiska bat ageri da, eta kostra erortzen doanean deskamazioa, azalean gorriune bat utziaz. Hau epidermisaren lo-



ditzearekin batera gertatzen da gehienetan.

Orain arte antihistaminiko, hidratatzaileak, antibiotikoak (gaiztotzen denean), kupre sulfatoa eta potasio permanganatoa (legortzeko), Kortiko-esteroideak (hauek dira sintomatologia gehien hobetzen dutenak) erabili izan dira dermatitisari aurre egiteko. Ziklosporina da, dermatitisean erabili den immunomodulatzaile bakarra, baina azalaren iragarkortasuna eskasa da ziklosporinarentzat, eta emaitzak ere eskasak izan ohi dira. Kasu larrietan sistemikoki erabili izan da ziklosporina. Takrolimus-a 10 edo 100 aldiz eraginkorragoa da, eta askoz hobekiago pasatzen da azalean zehar.

### Nola eragiten du Tacrolimus-ek?

Antigorputzei, nahiz zelulei dagokien erantzun inmunea gutxituz eragiten du. Bi erantzun hauetan sortzen diren estimuluen ondorioz gertatzen den T linfozitoen aktibazioa eragozten du. Alde honetatik ziklosporina baino 100 aldiz eraginkorragoa da. B linfozitoen aktibazioa ere eragozten du, antigorputzek sortua baldin ba-

da, baina ez bakterio-osagaiek sortua baldin bada.

Tacrolimusek ez dirudi azalaren loditasuna jeisten duenik, azalaren atrofiarik sortzen duenik ez eta kolagenoaren sintesian eragiten duenik. Ikerketa kliniko asko egin dira, oso kontutan hartzeko hobekuntzak ikusi direlarik, bai azkurearen intentsitatean, bai eta dermatitisak kalteturiko azalaren azalera ere. Agertzen zen aurkako eragin bakarra, nolabaiteko azaleko erresumina zen, eta egun batzuren buruan desagertzen zen.

### BERRIKUNTZA

Lehenengo aldiz onartu da azalean zuzenean emandako immunomodulatzaile bat erabiltzea dermatitisari aurre egiteko.

Aukerako tratamendua izan daiteke kasu larrietan, edo kortikoesteroideak emaitzik ematen ez duten kasuetan (Tacrolimusa eta kortikoesteroideak txandakatzea ere kontutan hartzeko prozedura izan daiteke).

Beraz, hain zabaldua dagoen eritasun honentzat behin betiko erantzuna izan ez arren, bide oso interesgarria zabalik geratzen da.

Farmazialari Euskaldunen Elkartea (FEUSE) 1995ean jaio zen farmaziaren alorrean euskararen garapena eta erabilpena bultzatzeko asmoz. Farmazia zientzia bezala zabala denez, asko dira jorratzen diren gaiak eta beraz, oso ezberdinak batzuetan eta besteetan ohizkoak diren hitzak. Zenbait kasutan, gainera, ez da erraza suertatzen euskaraz hitz egokia aurkitzea adierazi nahi diren kontzeptuentzat. Zailtasun hauek guztiontzat gero eta txikiagoak izan daitezten, FEUSEk egitasmo ugari burutu ditu bere historian zehar eta hauen artean kokatzen da orain lehenengo aldiz iragartzen den sari hau. Euskaraz-sortutako testu tekniko-en kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten lagun dezala espero dugu.



FEUSE saria Farmaziarekin zerikusia duen euskaraz idatzitako lanik hoberearentzat izango da

# FEUSE saria

Elkarteko zuzendaritza batzordeak Eibarraren eginiko azken batzar orokorrean aurkeztu zuen sari bat sortzeko asmoa. Kide guztiei azaldu zitzaion moduan, egitasmo berri honen helburua farmaziarekin lotutako euskaraz idatzitako testuen sorrera bultzatzea litzateke. Batzarrak argi berdea eman zion proiektuari eta jadanik prest da sari berri honen lehenengo deialdia.

Zuzendaritza batzordearen asmoa litzateke aurrerantzean ere deialdi hau berriz egiteko moduan izatea. Dena den, oraindik ikusteke dago zein izango den farmazialari euskaldunen erantzuna eta horren arabera aztertuko da datozen urteetan deialdia berritzeko aukera. Oraingoz, guztiok animatu nahi zaituztegu gustuko duzuen gai horren inguruan euskaraz idazten saiatzeko. Saria ez da makala, 3000 €koa alegia, baina dudarik gabe, guztiok poztuko gintuzkeena partehartze handia izatea litzateke.

## OINARRIAK

- Farmaziarekin zerikusia duten euskaraz idatzitako lanak onartuko dira.
- Lanak originalak eta argitaratu gabeak

izango dira. Horrela ez izateagatik sortu daitezkeen arazoaren ardura egileena izango da eta FEUSEk ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.

- Egileak bat edo gehiago izan daitezke, baina guztiak farmazialari edo farmazia fakultate bateko ikasle izan behar dute. Baldintza hau egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira.
- Irudiak, grafikoak, argazkiak edo beste-lako eranskinak zenbakiturik eta testuarengandik berezirik aurkeztuko dira.
- Lana osatzen duen testu guztia fitxategi informatikoan aurkeztuko da eta aldi berean, hiru ale DIN A4 formatuan inprimaturik aurkeztuko dira.
- Lana prestatzeko erabilitako bibliografia ere aurkeztu beharko da.
- Lanarekin batera gutun bat igorri beharko da, bertan lanaren izenburua eta egilearen edo egile taldearen izen goitua aipatzen direlarik. Gainera kartazal itxi baten kanpoaldean ere lanaren izenburua eta izengoiti berbera jarriko dira eta kartazalaren barruan egilearen edo egileen izen-deiturak eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa gordetako dira.

- Aurkezpen gutuna, inprimaturiko lanaren hiru aleak, euskarri informatikoan gordetako bertsioa eta egilearen edo egileen datuak gordetzen dituen kartazal itxia elkarrekin igorriko dira honako helbidera:

## FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

### Saria

San Martin, 36 – 3.B  
20005 DONOSTIA

- **Lanak jasotzeko epea** 2003ko urriaren 31 bitartekoa izango da.
- **Partehartzaileak:** Farmazialariak eta farmazia fakultateetako ikasleak
- Lanak aztertuko dituen epaimahaia FEUSEk izendatuko du. Epaimahaikideek ezin izango dute lanik aurkeztu deialdi honetan.
- Epaia 2003ko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko zaio irabazleari.
- Epaimahaiaren erabakiaren aurkako helegiterik ez da onartuko.
- **Sariaren kopurua 3.000 €** izango da eta zatiezina da.



## BATZAR OROKORRA

### Aurtengoan Orion

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu, datorren apirilaren 6an, igandea, FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEAREN VIII. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Urola-Kostaldeko herri zoragarria den ORION ospatuko dugula. Egun berean, IÑAKI LASA AIESTARAN lankidea omenduko dugu. Farmaberriko aurreko alean, orrialde bat eskaini genion gure lankide jatorrari. Orduan genioen moduan, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoko lehendakaria izan da (1978-1981); Medikamentuei buruz Informatzeko Zentroa sortu zuen; Elkargoko laborategiaren jarduera suspertu zuen, Txirringularitzaren Nazioarteko Batasunaren dopin kontrolak egiteko homologazioa lortuz; drogen arazoaren aurrean ekintza anitz bultzatu zituen.

Aitaren ogibide bera aukeratu zuen; berarekin hasi zen lanean, geroago semearen esku gelditu zen Orioko plazan dagoen farmazian.

Iñakik, Josetxo Egia apaizarekin eta beste gurasoekin adimen urriko seme-alabentzat 1960an Atzegi sortu zuten. Bestalde, duela 25 urte, bere emaztearen etxean, Errepublikako garaitik gordeta zuten ikurriña Udaletxera eraman zuen "txistulari eta herritar asko lagun genituela, gerran ibilitako gudariei deitu zitzairen, emozio handiko eguna izan zen Orion". Horrez gain, Eugenio Azkue eta Angel Erzillarekin Galarreta eta Euskal Jai erremonteko frontoiak sortu zituen Hernanin eta Uharten hurrenez hurren. Era berean, irratiko afizionatua ere bada, eta hori esker Ugartek ontzian munduari buelta eman zionean, egunero entzuten zioten hitz egiten, baita berarekin hitz egitea lortu ere. Beste behin, Mariaren konpainiako mojak etxera etortzen zitzaizkion Zairerekin hitz egitera, gerran baitzeuden.

2001eko abenduaren 15ean, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren Gorespen saria eman zioten. Farmazialari Euskaldunen Elkarteko kidea da hasieratik Egitaraua eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu. eraz, adi egon; datorren apirilaren 6an, Orion duzu hitzordua. Oso ongi pasatuko duzu.

## Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea

### XIII. Osasun Jardunaldiak

XIII. OSASUN-JARDUNALDIAK Donostian egingo dira maiatzaren 9an eta 10ean. Aurreko urteetan bezala jardunaldiak osasunaren inguruan lan egiten duten profesional euskaldun guztientzat eta gai horietan interesatuak egon daitezkeen entzule guztientzat daude zabalik.

Jardunaldietarako aukeratu den gaia OSASUNA ETA TEKNOLOGIAK da, gai zabala eta gaurkotasun handikoa, baina baita espezialitate desberdinetako jendeak parte hartzeko aukera ematen duena aldi berean.

Harremanetarako: Mercedes Menéndez. Laborategia. Idazkaritza. Donostia Ospitalea, Begiristain Pasealekua z/g. 20014 Donostia. E-mail: menéndez@chdo.osakidetza.net

## Javier Saenz de Buruaga

### Adiskide eta lankidearen oroipenean

Duela gutxi, Eguberrietan, gure adiskide mina Javier zenu zen. Euskal Administrazio Sanitarioa sortu zenetik berak egindako ibilbide luzean kargu asko izan zituen. Ibilaldi honetan, hurbiletik ezagutu genuen botikari askorentzat "el Buru" ez zen bakarrik el jefe izan; adiskide, aholkulari, gizon onbera eta zintzoa ere izan baikenuen.

Gure lanbidearen zirrikitu guztiak ezagutzen zituen eta Farmazia, jendearen bizi-kalitatea hobetzeko bizibide aproposa zela uste zuen. Etengabe borrokatu zuen ideia horren alde, esparru guztietan; berak uste osoa baitzuen Farmazia, Osasun Publikoko eremu garrantzitsua zela, irekia eta gizartearekiko engaiatua.

Hori dela bide, geunden postuan geundela, oso zorrotza izan zen gurekin.

Bere ustez, "profesional ona" izatea ez zen bakarrik ohiko curriculumak edukitzea (espediente akademiko bikainak, doktoretza cum laude edo unibertsitate ospetsuetan egindako masterrak); guzti hori behar bezala balioesten zuen, baina hori baino gehiago pertsonak zituen gogoko, uste osoko pertsonak, giza-balio sendokoak, biziak, herritarrei hobeto zerbitzatzeko aukerak izan litezkeen ekimenak hartzeko gauza ziren pertsonak.

Iñaki Azcunak eta Javier bere lankide minak Euskal Sanitateko garairik interesgarrienak partekatu zituzten. Javierrek, 1999an Madrilen Sanitatearen Gurutze Gorena jaso zuenean Iñaki Azcunak emandako hitzaldian gizon on, zintzo eta jasanbera zela esan zuen. Bere merezimendu profesionalak ziurtzat eman zituen eta Javier hurbiletik ezagutzen ez zutenei funtsezkoena azpimarratu nahi izan zien. Botikariok harro egon gaitezke izan dugun ordezkariaren. Ez bakarrik berarekin, garai desberdinetan, oraintsu ere, beste askorekin ere bai, hain entzutetsu ez izan arren. Joan zaizkigu eta gogoan ditugu.

Pertsona bikain hauek profesional eredugarriak ditugu. Oroipen eta esker oneko lerro hauek ezin bukatu ditugu epitafiorik gabe:

"Gehiago bizi izan ez banaiz, denbora faltagatik izan da" Ustu dugu "Buru"ren gustukoa izango dela. Goian bego.